

El único discurso válido será el pronunciado por la oradora en el acto.  
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.

## Imanol Pradales (2024.09.29)

Alderdikideok, alderdizaleok, egun on guztioi! Ze ederra den Foronda horrela ikustea! Lepo beteta! Alderdia gara! Eta Alderdia indartsu dago! Indartsu eta gogotsu gaude! Gaur ere, ederto pasatzeko intentzioarekin etorri gara! Elkarrekin ospatzera! Alderdia garelara ozen aldarrikatzera! EGI-ko gazteak eta beteranoak! Iparraldetik eta Hegoaldetik! Aturri-tik Ebro-ra arte! Lurralde guztietatik! Baita diasporatik ere, bihotzean daramagun Euskadiren zortzigarren lurraldea! Bat gara! Euzko Alderdi Jeltzalea gara!

Nire lehen Alderdi Eguna da Lehendakaria naizela. Eta oso berezia da, bai. Hona nentorrela hiru sentimenduk nire barruak mugitu dituzte: Ilusioak, Ohoreak eta Erantzukizunak.

**Ilusioa** sentitzen dut beste behin ere hemen egoteagatik. Hori da txiki-txikitatik sentitzen dudana Alderdi Egunerako bidea hartzen dudana bakoitzean. Txikitatik, etxean, jai eguna zen... Igande batean korrika ateratzeko presak... Ikurrina hartu, bazkaria, normalean amak prestatutako haragi 'enpanatua', azkar gosalduta Mamarigan autobusa ez galtzeko... Auzokide guztiak berdin genbiltzan, urduri. Ze oroitzapenak! Gaztetan egoera aldatu zen. Inplikazio handiagoa. Politikarako grina. Hitzaldiak entzuteko eta lagunak ikusteko gogo. Festa eta eztabaida amaiezinak... Orain, Alderdi Eguna beste era batera bizi dugu. Gaztetako lagunak gurekin nagusitu dira. Beste batzuk, tamalez, ez daude gurekin. Baina garaia eta pertsonak aldatu arren, Alderdi Eguna esentzia bera mantentzen du: Familiako eguna da! Jeltzale eta jeltzaleon egunik handiena! Batzen gaituen Eguna! Alderdi Eguna!

**Ohorea** ere sentitzen dut. Abertzale batek sentitu dezakeen handiena. Ohorea da hemen zuekin batera izatea. Gaur goizean bertan zuengandik jaso dudana gertutasuna, konfiantza eta babes itzelak izan dira. Une honetan nire aurretik hemen goian izan diren beste Lehendakariak etortzen zaizkit gogora. Niretzako erraldoiak dira. Lehen mailako erreferenteak. Espero dut nire aurrekoek erakutsitako maila erakusteko gai izatea. Lehen egunetik nire onena ematen saiatzen ari naiz. Lanerako gogo eta ilusio guztiarekin. Gaurko Eguna aukera ematen dit eskerrak emateko. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, Alderdia osatzen duzuen pertsona guztiei, familia honi, zuen indarra eta gertutasuna erakusteagatik. Ondo baino hobeto dakizue gaur zuei esker hemen nagoela. Ez dago zuek ordezkatzera baino ohore handiagorik! Ez dago herri hau ordezkatzera baino ohore handiagorik! Eskerrik asko! Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

Es un honor subir a esta tribuna. Desde aquí nos han hablado gigantes. Gigantes del Partido Nacionalista Vasco, gigantes de la política de nuestro País. Líderes que han mantenido viva la llama del Pueblo Vasco a lo largo de la historia. Defendiendo la libertad, la identidad y la cultura vasca. Defendiendo la democracia, los derechos humanos, los derechos de nuestro Pueblo y la construcción de la Nación vasca día a día. Por eso hoy también es día para honrar a quienes nos precedieron. A quienes lucharon por nuestro Pueblo y lo dieron todo. Sacrificando todo por y para Euskadi. Hoy quiero hablaros del último eslabón de una cadena que nos une y vertebra. Nuestro Lehendakari Iñigo Urkullu. Hace 12 años fuiste elegido Lehendakari y bajo el árbol de Gernika juraste defender los intereses de nuestro Pueblo. Contra viento y marea. La Patria Vasca por encima de todo. Es lo que has hecho durante todos estos años. Con un compromiso inquebrantable. Un trabajo incuestionable. Defender la causa del Pueblo Vasco. Has dejado una Euskadi mucho mejor de la que encontraste. No se me ocurre mayor y mejor legado. El año pasado, citando el Tour, nos animaste aquí a todas y todos: “hartu ikurriña eskuan eta erakutsi munduari harrotasunez Zer eta Nor garen”. Hori da egunero egin duzuna Iñigo Lehendakaria: Zer eta Nor zaren erakustea. Eskerrik asko guztion izenean Euskadiri eman diozun guztiagatik, Herri honen alde dena emateagatik!

Ilusioa, ohorea eta erantzukizuna. **Erantzukizun** handia sentitzen dut. Erantzukizuna Euskadik asko duelako jokoan datozen urteetan. Eta asmatu nahi dugu. Asmatu behar dugu. Ezinbestekoa dugu egungo momentu historikoa ondo ulertzea. Munduan aldaketa sakonak gertatzen ari dira. Euskadin eragin zuzena duten aldaketak. Horien jabe egin behar gara eta gure burua egokitu. Une berezia bizi dugu. Europaren biziraupena ez dago bermatuta. Ezta Euskadirena ere. Biziraupen hori egunez egun irabazi behar dugu.

Sí, el mundo está revuelto. Son muchas las amenazas y riesgos que pueden condicionar nuestra causa. Debemos entender bien lo que enfrentamos, para acertar en el camino que debemos recorrer. Una primera amenaza es la pérdida del sentido de comunidad. Un sentido de comunidad que caracteriza a nuestro Pueblo. Que nos ha permitido resistir en los momentos más duros de nuestra historia. Que nos ha permitido avanzar rápido cuando el viento nos ha sido favorable. Hoy, sin embargo, vivimos la tendencia creciente del individualismo, el materialismo, el cortoplacismo, el egoísmo, la búsqueda de respuestas y soluciones inmediatas. Nuestro valor pasa por poner a la persona en el centro. Por fortalecer nuestro sentido de comunidad. Por ser y sentirnos parte de algo más grande, común y compartido.

Una segunda amenaza es el desprestigio de la política. De la acción institucional. Vivimos tiempos de populismo y demagogia. Discursos de soluciones fáciles a problemas complejos. Nuestro valor es demostrar ejemplaridad en el comportamiento político y la responsabilidad institucional. ¡Nuestro valor es decir la verdad! ¡Afrontar los problemas de frente! ¡Sin falsas promesas! La verdad. De frente. ¡Sin falsas promesas!

Hirugarren mehatxu bat: aniztasunaren kontrako eraso. U-NI-FOR-MI-ZA-ZIOA. Gure balioa kulturarekin dugun konpromisoa da; eta gure hizkuntzarekin, euskararekin, duguna. Gure balioa desberdinari errespetua erakustea da. Eta integrazioa erraztea. Gu geu garena. Gure nortasuna. Gure bihotza. Hori bai, nortasun irekia, moldatzen eta eraldatzen dena; eta, baita ere, gure sustraiei erabateko errespetua diona. Euskal nortasuna.

Una cuarta amenaza, siempre latente: la tendencia jacobina y centralista de los Estados. Nuestro valor es la defensa del Autogobierno singular. De nuestros Derechos Históricos y la bilateralidad. La defensa de Euskadi como sujeto político. Hablando de bilateralidad... Estas semanas volvemos a ver ataques al Concierto y Convenio económico. No es algo nuevo. Pero es preocupante. Muy preocupante. Tenemos que defenderlo juntas y juntos, desde las instituciones, los partidos políticos, los agentes sociales y económicos, la sociedad en su conjunto.

Hemen gaude. Zazpiak bat eginda. Euskadi bat gara gure eskubideen defentsan. Horregatik, aste honetan bertan, herri bera ordezkatzeko dugun bi Gobernuak euskaldunon interesak elkarrekin defendatu ditugu. Gure Itun Ekonomikoa, gure Eskubide Historikoak. Hau da bidea!

Hau da gure etorkizuna! Hau da gure egiteko modua! Hau da gure aukera! Zazpiak bat!

Y una quinta amenaza: el relativismo moral; el “todo es igual”; el “¡total... qué más da!” Una amenaza que nos lleva a no diferenciar lo que está bien de lo que está mal. A no valorar lo que tenemos. Os digo una cosa: no todos somos iguales y no todos en este País defendemos lo mismo. Necesitamos personas críticas, con capacidad de discernir y decidir por sí mismas. Sin controles. Sin imposiciones. Personas libres. Con valores. Sólo así tendremos una sociedad y un País mejor. Os digo una cosa: estoy convencido de que hoy, como ayer, ¡vamos a volver a acertar! ¡Euskadi va a crecer en bienestar y libertad! ¡Bienestar y libertad!

Tenemos una gran ventaja. Nuestro modelo funciona. El modelo de la construcción nacional y social de Euskadi piedra a piedra. Día a día. Sabiendo leer el momento, junto con la sociedad vasca, con paciencia e inteligencia política, sin perder nunca el rumbo. Modelo PNV. Hay quienes defienden otro modelo. El modelo populista del “todo es posible”. Del “tenemos derecho a todo”. Aquí y ahora. Este modelo nos trata de manera infantil. Nos intenta vender soluciones mágicas que son imposibles. Que hipotecan nuestro futuro. Este modelo se mira en el espejo de la Cuba castrista y la Nicaragua sandinista, y hoy jalea la Venezuela chavista. Nosotras y nosotros siempre hemos defendido otros referentes y valores. Nuestro espejo son las democracias más

avanzadas del norte de Europa. Es la brújula que nos ha guiado para construir la Euskadi moderna y cohesionada que tenemos hoy. Desarrollo Humano. Prosperidad. Justicia social. Libertad. Sentimos orgullo de lo que somos, de nuestro pasado, de los valores que defendemos, de lo que hemos construido y, sobre todo, de lo que vamos a ser capaces de lograr a futuro. La sociedad vasca nos conoce y les conoce. ¡Y ni nos van a embaucar, ni nos vamos a dejar engañar! ¡No nos vamos a dejar engañar! Gu geurera!

Queremos seguir creciendo como País. Os he hablado de retos. Pero estos retos son una gran oportunidad. Sentido de comunidad, Ejemplaridad, Compromiso cultural y con el euskera, el Autogobierno vasco. Son nuestra oportunidad. Tenemos un proyecto de futuro para Euskadi. Un proyecto alineado con Europa que responde a la triple transformación digital, verde y social. Un proyecto para que Euskadi pueda dar un salto tecnológico e industrial. Multiplicar la inversión pública y la innovación como propone el Informe Draghi. Responder al reto del cambio climático y acertar en la transición energética. Garantizar el bienestar, el envejecimiento activo, la solidaridad intergeneracional... Impulsar la cultura del emprendimiento, atraer y retener talento... Avanzar en educación y ciencia. Desarrollar nuestra identidad, cultura y el euskera en el Siglo XXI. ¡Un proyecto de futuro para una Euskadi Global, la Euskadi del bienestar y la libertad! ¡Vamos a aprovechar nuestro Autogobierno al máximo!

Vienen meses importantes para Euskadi que marcarán nuestro futuro. Cuando se aprobó el Estatuto de Gernika yo tenía 4 años. Han pasado más de 44 años. Sigue incumplido. Ya no son suficientes ni las buenas palabras ni las buenas intenciones. Las competencias y el calendario están claros. ¡El Gobierno español tiene que pasar de las palabras a los hechos. Tiene que cumplir. El pacto obliga y Moncloa lo sabe. Obliga y lo sabe.

Euskadi ha cambiado profundamente en 44 años. Cuando se aprobó el Estatuto no formábamos parte de la Unión Europea. Ni siquiera podíamos imaginar derechos sociales que hoy son incuestionables. Por eso Euskadi necesita un Pacto Político que dé respuesta a los nuevos tiempos y a las nuevas necesidades de la sociedad vasca. Necesitamos renovar el 'hardware' de nuestro Autogobierno. Un Pacto que mejore y ensanche nuestras capacidades políticas. Que nos permita asentar una relación bilateral con el Estado que incluya el reconocimiento de Euskadi como Nación, la singularidad de nuestro Autogobierno y un sistema de garantías para el cumplimiento efectivo de lo acordado. Trabajando también el 'software': aquello que no es físico, que no se ve, pero es clave para que un País avance. Me refiero al fortalecimiento de nuestra comunidad, Herrigintza. Herriz-herri, elkartzek-elkarte, plazaz-plaza, herritarrekin, Herrigintzan. Vamos a explorar, también, nuevas vías que superen los marcos estatales para el crecimiento de nuestro Pueblo. Que nos lleven hacia una nueva Euskadi global, más libre y conectada al mundo. Vienen tiempos importantes para avanzar hacia un nuevo futuro político para Euskadi. El derecho histórico nos asiste. La voluntad democrática y

mayoritaria del Pueblo Vasco es y será decisiva. .La voluntad democrática y mayoritaria del Pueblo Vasco es y será y determinante. Decisiva y determinante.

Txiki-txikitatik erakutsi zidaten gure herriaren eraikuntzarako eta askatasunerako lanabes nagusia Alderdia dela. Gidatzen dudun Gobernuko arduradun guztiei argi eta garbi esan diet, eta gaur ere zuekin partekatu nahi dut: Zein da gure kausa? Zertarako gaude gu hemen? Gobernatzeko erantzukizuna hartu dugu, herritarren eguneroko beharrei erantzuna emateko. Osasuna, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, euskara, berdintasuna, segurtasuna, industria... Errespetutik, hurbiltasunetik eta, batez ere, apaltasunetik. Entzute aktiboa edo konpromisoa bezalako balioak beti defendatuz. Gure ardura gobernatzea da, baina gure ardura kudeaketatik haratago doa. Gure ardura Politikoa ere bada. Hori da gure kausa. Gure erantzukizuna Herri honen lidergoa gure gain hartzea da. Horretarako gaude hemen. Gure Herria epe laburreko eta epe luzeko ikuspegiarekin gidatu behar dugu. Ezkutatu gabe. Arazoei aurre eginez. Erabateko konpromisoa erakutsiz.

Es la hora de dar un paso al frente. Sin miedo a cometer errores. Tomando decisiones valientes. Acción de Gobierno y acción política. Doble responsabilidad. Doble compromiso. Nuestra acción de Gobierno debe contribuir a fortalecer y ensanchar nuestro proyecto político. Por eso necesitamos vuestra fuerza, compromiso y ayuda. Transformar la sociedad vasca significa estar presentes, participar y trabajar. Desde la máxima humildad. Abiertos a la crítica. ¡Con la aspiración de mejorar! ¡Siendo autoexigentes! ¡Mirando a las personas a los ojos! ¡Gestión pública con rostro humano! ¡Política con sensibilidad emocional! ¡Es el camino para la nueva Euskadi del bienestar, más libre y global!

Amaitzera noa. Eraldaketa garaia bizi ditugu eta gauza bat esango dizuet. Argi eta garbi: eraldaketa hori aukera bat da guretzako. Aukera, baldin eta ikuspegia partekatzen badugu. Gizartean gure presentzia areagotzen badugu. Dugun ilusio hau indartzen eta hedatzen badugu. Eraldaketa garaia bizi dugu eta eraldaketa horretan, denok, aitzindariak izan behar gara. Aitzindariak Euskadiren alde. Aitzindariak gure gizartearen, nazioaren eta aberriaren alde. Burujabetzaren alde! Garai garrantzitsuak datoz. Etorkizun politiko berrirantz aurrera egiteko garaia da. Bide berriak urratu behar ditugu gure herria garatzeko. Estatuaren muga eta esparruen gainetik hazten jarraitzeko. Euskaldunon borondatea erabakigarria da! Euskaldunon borondatea geldi-ezina da! Gure eskubidea da! Eskubide historikoa! Euskotarren Aberria Euskadi da!

Gora Eusko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi Askatuta!